

Segurtasun Araua: Hornitzaileentzako Informatikako Jokabide Kodea

Egin eta mantentzeko ardurad.:

Berrikuspena: **00**

Segurtasun Saila

Indarrean sartzeko eguna: **11/05/02**

1. XEDEA	2. IRISMENA
Araua honen helburua da Segurtasun politika finkatzea Lantik-ren hornitzaileei Lantik-ek jartzen dituen azpiegitura eta baliabide informatikoak egoki erabiltzen laguntzeko.	Lantik-ren hornitzaileek erabilitako azpiegitura eta baliabide informatikoei aplikagarri zaie, eta hauen artean tresna informatikoak erabiltzea, beste sare batzuetara jotzea (adibidez Internet, intranet, sare korporatiboa), posta elektronikoa, aplikazioetarako sarbidea,... bezalako zerbitzu korporatiboak erabiltzea ahalbidetzen duten informatikako ekipoak, programak, zerbitzariak, sareak,... daude.

AURKIBIDEA

1. XEDEA	1
2. IRISMENA	1
1. SARRERA	¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
2. APLIKAZIO-EREMUA	¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
3. ARRAZOIAK ETA HELBURUAK	¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
4. BALIABIDE INFORMATIKOEN ERABILERARI BURUZKO JARRAIBIDE OROKORRAK	¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
5. BERRIKUSI ETA KONTROLATZEKO AHALMENA	¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
6. SARE KORPORATIBORAKO SARBIDEA	¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
7. EKIPO INFORMATIKOEN ERABILERA (HARDWAREA)	¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
8. PROGRAMA ETA ARTXIBO INFORMATIKOEN ERABILERA (SOFTWAREA)	¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
9. NABIGAZIOA INTERNETEN	¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
10. POSTA ELEKTRONIKOAREN ERABILERA	¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
11. SAREKO UNITATEAK (MEMORIA)	¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
12. HORNITZAILEAK EMANDAKO BALIABIDEAK	¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
13. BETETZEA	¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
14. JOKABIDEA ARAUAK BETETZEKO BEHARRA	¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
15. INDARREAN SARTZEA ETA INDARRALDIA	¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
16. LOTUTAKO DOKUMENTUAK	¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
17. BERRIKUSPENEN HISTORIA	¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.

Segurtasun Araua: Hornitzaileentzako Informatikako Jokabide Kodea

Berrikuspena: 00

Indarrean sartzeko eguna: 11/03/24

1. SARRERA

- 1.1. Lantik-ek azpiegitura eta baliabide informatikoak ditu, bere zerbitzuen prestazioen eraginkortasuna eta azkartasuna bermatzen dituztenak. Tresna hauen artean tresna informatikoak erabiltzea, beste sare batzuetara jotzea (adibidez Internet, intranet, sare korporatiboa), posta elektronikoa, aplikazioetarako sarbidea,... bezalako zerbitzu korporatiboak erabiltzea ahalbidetzen duten informatikako ekipoak, programak, zerbitzariak, sareak,... daude.
- 1.2. Aipatutako baliabideen erabilera orokorra denez eta Lantik-ek bere bezeroentzako zerbitzuan hartutako erantzukizunak direla eta, arau argiak ezartzeko beharra dago hornitzaileek bitarteko hauek egoki erabiltzen laguntzeko.
- 1.3. Definizioak

Administratzaileak: Sistema informatiko baten funtzionamendu zuzena ikuskatu eta kontrolatzen duten pertsonak.

Egunerapen edo adabakiak: Arazoak konpontzeko (segurtasuna, errendimendua...) programei egiten zaizkien hobekuntzak.

BFA: Bizkaiko Foru Aldundia – Diputación Foral de Bizkaia.

ELZ: Erabiltzaileei Laguntzeko Zentroa.

Pasahitzak (password) edo Segurtasun gakoak: BFAk bere zereginak egiteko erabilgarri jarri dituen baliabide informatikoak eta azpiegitura eskuratu eta erabiltzea ahalbidetzen duten "giltzak" dira.

Erabiltzailearen kontua edo "User-id": Erabiltzailearen identifikatzailea da, sistema informatikoan sartzeko erabiltzen dena.

Interneteko helbideak: Interneten ekipo bat identifikatzen duen helbidea. Berau aipatzen denean, oro har IP helbideei buruzkoa da.

Informazioa: Sistema informatikoen bidez gorde, prozesatu, adierazi eta ematen den guztia barne hartzeaz gainera, idatzi edo inprimatutakoa, ikusizko baliabideen bidez proiektatutakoa eta hitzez ere jakinarazitakoa ere jasotzen du.

Informatika mugikorra: Erakundearen dependenzietatik kanpora ateratzen diren elementu guztiak barne hartzen ditu, hala nola eramangarriak, kanpoko disko gogorrak, PenDriveak, telefonoak, PDAk,...

Azpiegitura: Lantik-ren funtzionamendurako beharrezkotzat jotzen diren elementu edo zerbitzuen multzoa.

Hornitzailea: Lantik edo bere bezeroei zerbitzuak ematen dizkien pertsona edo enpresa, plantillakoa ez dena.

Baliabidea: Informazio sistema baten edozein zati edo osagai.

Segurtasun Araua: Hornitzaileentzako Informatikako Jokabide Kodea

Berrikuspena: **00**

Indarrean sartzeko eguna: **11/03/24**

(Datuen) sarea: Informazioa trukatu ahal ditzaketen ordenagailu edo ekipu informatikoen (elkarren artean konektaturik) multzoa.

Barneko Sarea: Elkartrukearen eremua enpresa / administrazioko ingurunera mugatuta dagoen datuen sarea.

Informazio Sistema: Datuak tratatzeko erabilitako fitxategi, tratamendu, programa, euskarri eta, egonez gero, ekipoen multzoa.

Erabiltzailea: LANTIK-ren zerbitzupeko langile guztiak (langile finkoak, aldi baterakoak edo behin-behinekoak), baita edozein harremanari jarraiki Lantik edo bere bezeroen informazio edo baliabideetara jo ahal dezakeen edozein pertsona ere.

2. APLIKAZIO EREMUA

- 2.1. Kode honetan jasotako arauak aplikagarri izango zaizkie Lantik-ren hornitzaile guztiei.
- 2.2. Informatikako Jokabide Kode honen ondorioetarako, hornitzailetzat hartuko da Lantik edo bere bezeroei zerbitzuak ematen dizkien pertsona edo enpresa oro, baita edozein harremanari jarraiki Lantik edo bere bezeroen informazio edo baliabideetara jo ahal dezakeen kanpoko edozein pertsona ere.
- 2.3. Jokabide Kodea ere aplikagarri zaie Lantik-ren sarearen bitartez, edo erakundean hornitzaileen esku jartzen dituen tresna eta sistemen bitartez, egindako komunikazio guztiei.
- 2.4. Lantik-ek hornitzaileen esku baliabide berriak, Kode honetan aurreikusitakoak ez direnak, sartu eta jartzen baditu, eta hauen gaineko erregulazio zehatzagoa eman arte, bere erabilerari dagokionez Informatikako Jokabide Kode honetan xedatutakoa aplikatuko da.
- 2.5. Jokabide Kode honen edukiari dagokionez sor litekeen edozein zalantza edo kontsulta argitzeko, ELZren bidez kontsultatzea eskatzen dizugu.

3. ARRAZOIAK ETA HELBURUAK

Segurtasun Araua: Hornitzaileentzako Informatikako Jokabide Kodea

Berrikuspena: **00**

Indarrean sartzeko eguna: **11/03/24**

- 3.1. Jokabide Kode honetan jasotako jarraibideak ezarri dira arau argiak ezartzea beharrezkoa delako, (i) Lantik-ek hornitzaileen esku jartzen dituen lanerako sistema eta tresna tekniko eta informatikoen erabilera egoki eta eraginkorra bermatzeko, (ii) hauen erabilera okerra edo desegokia bezalako praktika jakin batzuk saihesteko eta (iii) Lantik-ek eta hornitzaileek aplikatu beharreko araudien xedapen guztiak betetzea bermatzeko.
- 3.2. Halaber, bere xedea da hornitzaileak kontzientziatzea informatikako ekipoen segurtasunari buruz, Lantik-ren instalazioen barruan zein kanpoan. Horregatik, hain zuzen ere, Kodearen arauak ere hartu behar dira hornitzaileak sare korporatiborako sarbidea badu Lantik-ren instalazioetatik kanpo dauden ordenagailuetatik.
- 3.3. Kode honek Lantik-ren hornitzaileak ere kontzientziatu nahi ditu informatikako baliabideak zuzen erabiltzeko beharrari buruz, hirugarrenekin (administrazioak, bezeroak, enpresak,...etab.) eta gainerako hornitzaileekin hartzen ditugun kalitate eta konfidentziasuneko konpromisoak bermatzeko. Izan ere, Lantik-ek zentzu horretan konpromiso maila oso handia hartu du bere informazioari dagokionez, eta hau ez da jakinarazi edo erabilgarri egon hirugarren pertsonentzat.
- 3.4. Gure erakundearen barruan informazioaren teknologia berriak sartzek Lantik-ren inguruetik kanpo informazioaren balizko ezagutarazpenaren aurrean sor daitezkeen arriskuak esponentzialki handitzea dakar. Alderdi hau funtsean esanguratsua da Lantik-rena bezalako ingurune instituzional eta publiko batean. Ondorioz, egiten den lanaren izaera sentikor eta konfidentziala aintzat hartuta, Lantik-ek hornitzaileek Lantik-ren barruan dauden tresna tekniko eta informatikoen gainean egiten duten erabilera monitorizatu eta ikuskatzeko sistemak ezarri ditu.

Segurtasun Araua: Hornitzaileentzako Informatikako Jokabide Kodea

Berrikuspena: **00**

Indarrean sartzeko eguna: **11/03/24**

4. INFORMATIKAKO BALIABIDEEN ERABILERARI BURUZKO JARRAIBIDE OROKORRAK

- 4.1. Hemen deskribatutako jarraibideak informatikako baliabideen eta azpiegituraren gainean egin behar den erabilera modu argi eta gardenean zehazten saiatzen dira. Lantik hornitzaileen esanetara dago hauek betetzearen gainean sor litekeen edozein zalantza edo argibiderako.
- 4.2. Lantik-ren asmoa da jabetza intelektual edo industrialeko legeen edukia betetzea, hori dela kausa, hornitzaileek, Lantik-ren esku jarri edota erabili baino lehenago, programak edo informazioa egiaztatu beharko dituzte, jabetza intelektual edo industrialaren legeek babestuta badaude eta beti iturria aipatu behar dute aipatutako informazioa edozein lan-dokumentutan erabiliz gero.
- 4.3. Lantik-ren jarduerekin lotutako informazio guztia konfidentziala da, horregatik, informazioa agindutako eginkizunak betetzeko helburuz bakarrik erabiltzera behartuta daude. Hornitzaileek informazio sistemen erabilerari aplikatutako eginkizunak eta obligazioak bete behar dituzte Lantik-ek emandako araudian eta indarreko araudian, zehazki DBLOn, ezarritako arauen arabera.
- 4.4. Lantik-ek edonoiz jakinarazi zaion edo hornitzaileak sortu duen informazioa jaso dezaketen edozein eratako euskarriak berehala itzultzeko eskatu ahal izango du.
- 4.5. Lantik-ek edonoiz kontratatutako zerbitzuen euskarri diren bere edo besteen baliabideak ikuskatu ahal izango ditu.
- 4.6. Hornitzaileek bere esku jarritako baliabideak ondo erabiltzeko moduan mantendu beharko dituzte, ezinbestekoa ez den edo baliorik ez duen informazioa kenduta, Lantik-ren zerbitzuen errendimendua eta kalitatea hobetu eta eraginkortasun nahikoa bermatzeko.

Erabilera xede profesionalaz

- 4.7. Lantik-ek hornitzaileen esku jarritako baliabide guztiak xede profesionalaz erabiliak izateko ematen dira.
- 4.8. Lantik sarearen bitartez (korporatiboa, Internet,...etab.) gertatzen diren konexio guztiak xede profesionalaz erabiliak izango dira.
- 4.9. Beste edozein erabilera debekaturik dago.

Lantik-rekin harremana amaitzea

- 4.10. Lantik-ek hornitzaileen esku sistema informatiko egokiak jartzen ditu bere eginkizunak egiteko hauen arteko harremana indarrean dagoen bitartean. Lantik-rekin lankidetzara amaitzen denetik aurrera, ez da ekipo tekniko eta informatikoak erabiltzerik egongo eta, ondorioz, ezta hauek jasotako artxiboak ere.

Segurtasun Araua: Hornitzaileentzako Informatikako Jokabide Kodea

Berrikuspena: **00**

Indarrean sartzeko eguna: **11/03/24**

- 4.11. Hornitzaile ohiak bere esku medio edo ekipo informatiko jakin batzuk (ordenagailu eramangarria, euskarriak, informazioa,...etab.) edukiz gero, bere harremana amaitu baino lehenago itzuli beharko ditu.
- 4.12. Halaber, hornitzaile batek Lantik-rekin duen harremana bukatzen badu, honek artxibo eta dokumentu guztiak ukitu gabe utzi beharko ditu.
- 4.13. Konfidentzialtasuneko betebeharrak Lantik-rekin harremana amaitu ondoren ere iraungo dute.

5. BERRIKUSI ETA KONTROLATZEKO AHALMENA

- 5.1. Lantik-ek sistema informatikoak berrikusteko eta erabilgarri dituen baliabideen bitartez hornitzaile bakoitzak bere esku jarritako medio eta baliabide informatikoen gainean egiten duen erabilera kontrolatzeko ahalmena beretzat gordetzen du, Lantik-ren eta gainerako erabiltzaileen interesak babesteko beharrezko dela jotzen denean, edo segurtasuneko edo zerbitzuaren arrazoi espezifikoengatik komenigarria denean.
- 5.2. Aipatutako berrikuspen horiek egingo dira Kontrol Informatikoaren Batzordeak emandako zuzentarauen arabera, legezko berme guztiak ahalik eta gehienez errespetatuta.

6. SARE KORPORATIBORAKO SARBIDEA

- 6.1. Hornitzaileen kontu guztiek pasahitza definituta eduki behar dute.
- 6.2. Lantik-ren hornitzaileek onartutako segurtasun arauak bete behar dituzte.
- 6.3. Ezein hornitzailek ere ez du Sare Korporatiboa erabiliko hirugarren pertsona edo erakundeei sarbidea emateko.
- 6.4. Lantik-ren hornitzaileek Sarearen erabileraren gainean sor litezkeen arazo guztiak ELZri jakinarazi behar dizkiote.
- 6.5. Baliabide hau xede profesionalaz erabiliko da.
- 6.6. Beste edozein erabilera debekaturik dago.

Segurtasun Araua: Hornitzaileentzako Informatikako Jokabide Kodea

Berrikuspena: 00

Indarrean sartzeko eguna: 11/03/24

7. EKIPO INFORMATIKOEN ERABILERA (HARDWAREA)

Printzipio orokorrak

- 7.1. Baliabide hau xede profesionalaz erabiliko da.
- 7.2. Beste edozein erabilera debekaturik dago.
- 7.3. Espresuki debekatuta dago beste erabilera batzuen sistema informatikoetan sartu edo hauetara jotzea beste erabiltzaile baten identifikazio pertsonaleko gakoa (login) edo pasahitza erabiliz, espresuki baimena ematen badu izan ezik.
- 7.4. Edozein arrazoigatik hornitzaile batek bere lanpostua uzten duenean, bere sistema blokeatuta utziko du hirugarrenek hornitzaile legitimoa baimenduta dagoen baliabide eta aplikazioetara jo ahal izatea saihesteko.
- 7.5. Lantik-ek hornitzaileek medio eta ekipo informatikoen gainean (hardwarea) egiten duten erabilera ona kontrolatu eta berrikusteari dagokionez, Kode honen 5.1 eta 5.2 klausuletan jasotakoa aplikagarria izango da.

8. PROGRAMA ETA ARTXIBO INFORMATIKOAK ERABILTZEA (SOFTWAREA)

Printzipio orokorrak

- 8.1. Nolanahi ere, informazio konfidentziala ezin izango zaie inolaz ere igorri informazioaren hartzailak ez diren hirugarren pertsona edo erakundeei, berau Lantik-ean aplikagarriak diren arau orokorretan babestuta badago izan ezik.
- 8.2. Lantik-ren hornitzaileen esku jarritako programa eta artxibo informatikoak erabilera profesional batera zuzenduta daude.
- 8.3. Hornitzaileek programa eta artxibo informatikoen erabilera kontrolatu eta berrikusteari dagokionez, Kode honen 5.1 eta 5.2 klausulak aplikagarriak izango dira.

Segurtasuna programa eta artxibo informatikoetan

- 8.4. Zerbitzua eskaintzeko erabilitako ekipo guztiek birusen aurkako programa instalatuta eduki behar dute. Hala eta guztiz ere, birusen aurkako programa hauek birus informatikoa sortu eta zabaltzeko arriskua guztiz ezabatzen ez badute ere, hornitzaileek ardura handiz jokatu beharko dute ezagunak ez diren iturrietatik datozen artxiboak exekutatzeko orduan. Zalantza egonez gero, artxibo edo programa ez exekutatu eta zuzenean ELZrekin harremanetan jartzeko eskatzen dugu.
- 8.5. Hornitzaileei ez zaie inolaz ere baimentzen ekipoetan instalatutako birusen aurkako programa desaktibatzea.

Segurtasun Araua: Hornitzaileentzako Informatikako Jokabide KodeaBerrikuspena: **00**Indarrean sartzeko eguna: **11/03/24****9. NABIGAZIOA INTERNETEN****Printzipio orokorrak**

- 9.1. Jokoen, eduki sexuala duten edo giza duintasunaren edo funtsezko eskubideen aurkakoak edo iraingarriak diren Interneteko helbideetan ez dira inolaz ere sartu behar.
- 9.2. Baliabide hau xede profesionalaz erabiliko da.
- 9.3. Beste edozein erabilera debekaturik dago.
- 9.4. Lantik-ek bere eginkizunak burutzean hornitzaileek erabilitako ordenagailuetatik egiten dituzten Interneteko sarerako konexioen datuak kontrolatu eta berrikusi ahal izango ditu, baita aipatutako konexio horien eduki zehatza ere, Informatikako Jokabide Kode honen 5.1 eta 5.2 klausuletan ezarritakoarekin bat etorritz.

10. POSTA ELEKTRONIKOAREN ERABILERA**Posta elektronikoko profesionala**

- 10.1. Baliabide hau xede profesionalaz erabiliko da.
- 10.2. Beste edozein erabilera debekaturik dago.
- 10.3. Lantik-ren eta bere bezeroen edo bezero potentzialen arteko harremanak eskatzen duen tratu konfidentzialak, ezinbestean, komunikazio-sistema egokiagoak erabiltzea dakar egin beharreko komunikazioaren izaerarekin lotuta. Horregatik, hain zuzen ere, aplikatu beharreko araudia betetzea, erabilera egokia eta segurtasuna bermatzeaz gainera, ezinbestean dakar komunikazioen edukia Lantik-ren zerbitzu teknikoan aldetik ikuskagarria eta kontrolagarria izatea.

Posta elektronikoko profesionalari aplikatu beharreko printzipio orokorrak

- 10.4. Informazio-ihesak eragozteko eta zerbitzua eraginkorra dela bermatzeko, beharrezkoak ez diren posta elektronikoen bidalketa saihestuko da, hartzaile kopurua zorrozki beharrezkoa denera mugatuta.
- 10.5. Espresuki debekaturik dago Lantik-ren sistema informatikoaren beste erabiltzaile batzuen posta elektronikoko helbideak edo mezuak baimendu gabe erabili edo bidean atzematea.
- 10.6. Lantik-ren hornitzaileek fidagarriak ez diren iturrietatik datorren posta elektronikoko edozein mezu baztertu behar dute, hauek birus edo kode maltzurak, SPAM edukia,...etab. eduki ahal ditzaketelako.
- 10.7. Lantik-ren hornitzaileek postako helbidea beharrezkoa ez denean zabaltzea saihestuko dute, batez ere mezuen kateetan ez parte hartuz, bere helburua oso altruista izan arren.
- 10.8. Posta elektronikoa erabiltzen duten hornitzaileek finkatutako arau eta politikak jarraitu behar dituzte konfidentzialtasuna eta osotasuna bermatzeko.

Segurtasun Araua: Hornitzaileentzako Informatikako Jokabide Kodea

Berrikuspena: **00**

Indarrean sartzeko eguna: **11/03/24**

- 10.9. Lantik-ek hornitzaileek posta elektronikoaren gainean egiten duten erabilera ona kontrolatu eta berrikusteari dagokionez, Kode honen 5.1 eta 5.2 klausuletan jasotakoa aplikagarria izango da.

11. SAREKO UNITATEAK (MEMORIA)

- 11.1. Lantik-ren hornitzaileen esku dauden sareko unitateak erabilera profesionalera zuzenduta daude.
- 11.2. Hornitzaileen esku jarritako sareko unitateak ezin dira inolaz ere erabili datu pertsonalak edo profesionalak ez direnak gordetzeko.
- 11.3. Beste edozein erabilera debekaturik dago.
- 11.4. Sareko unitateak erabiltzen dituzten hornitzaileek informazioaren elkartrukean konfidentzialtasuna eta osotasuna bermatzeko finkatutako arau eta politikak jarraitu behar dituzte.
- 11.5. Lantik-ek hornitzaileek sareko unitateen (memoria) gainean egiten duten erabilera ona kontrolatu eta berrikusteari dagokionez, Kode honen 5.1 eta 5.2 klausuletan jasotakoa aplikagarria izango da.

12. HORNITZAILEAK EMANDAKO BALIABIDEAK

- 12.1. Atal hau hornitzaileak zerbitzua eskaintzeko emandako baliabideei aplikatzen zaie.
- 12.2. Eman aurretik, Lantik-ren Segurtasun Sailari baliabideak gaineratu behar dituztela jakinarazi behar zaio.
- 12.3. Segurtasun Sailak ontzat eman arte ez dira gaineratuko. Gaineratze honek ekar dezake Segurtasun Sailak proposatutako kontrolak ezartzea.

13. BETETZEA

- 13.1. Hornitzaileen erantzukizuna da aplikatu beharreko legeria betetzea, hala nola DBLO, JIL, IGZL,...etab.

Segurtasun Araua: Hornitzaileentzako Informatikako Jokabide Kodea

Berrikuspena: **00**

Indarrean sartzeko eguna: **11/03/24**

14. JOKABIDE ARAUAK BETETZEKO BEHARRA

- 14.1. Azkenik, Lantik-ek komenigarritzat jotzen du hornitzaileei gogoraraztea aipatutako jarraibide horiek beraiek jarraitzea beharrezkoa dela, bezero eta erabiltzaileen intimitatea zaindu, komunikazioen sarearen kalitate eta gaitasuna hobetu eta segurtasuna hobetzeko xedez.
- 14.2. Horregatik, hain zuzen ere, hornitzaileek dokumentu honetan jasotako jarraibideak bete ezean, Lantik sozietatea neurri egokiak hartzera behartuta egongo da. Hori guztia hornitzaile arau-hauslea izan ditzakeen erantzukizun zibilak, penalak edo laboralak baztertu gabe.
- 14.3. Horretaz gainera, Lantik-ek sareko gailu edo ordenagailuan zerbitzua eten ahal izango dio Lantik-ek emandako baliabide tekniko eta informatikoen gainean Jokabide Kode honetan ezarritakora egokitzen ez den erabilera egin duen hornitzaileari.

15. INDARREAN SARTZEA ETA INDARRALDIA

- 15.1. Jokabide Kode honen edukia nahitaez ezagutu eta bete behar dute Lantik sozietatearen hornitzaile guztiek. Bere edukia indarrean sartuko da 2011ko maiatzaren 2tik aurrera eta indarraldiari eutsiko zaio beste batez ordezkatu edo aldatua ez den bitartean. Aipatutako egunera arte, trantsizioko aldia ezartzen da hornitzaileak pixkanaka bere lan-dinamika Kode honen edukira egokitzen joateko.
- 15.2. Lantik-ek hornitzaile bakoitzaren esku bere kopia bat jarriko du, bere ezagutza errazteko xedez.
- 15.3. Hornitzailearen erantzukizuna izango da Kode hau bere erakundearen zabaltea.
- 15.4. Gainera, indarreko Kodea momentu bakoitzean hornitzaileen esku egongo da Lantik-ren Extranetean, bertsio berrien argitalpena egoki jakinarazita.

16. LOTUTAKO DOKUMENTUAK

[NCS-1/2 Hornitzaileentzako Informazioaren Segurtasun Araudia](#)

17. BERRIKUSPENEN HISTORIA		
Berrikuspe	Eguna	Aldaketak
00	11/03/24	Araua onartzea